

**2025eko APIRILAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA** **13 zk.**

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko apirilaren 22an, arratsaldeko ordu bietan, bigarren deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

Jarduneko batzarburua JESUS ARANA GOMEZ JN.

Batzarkideak GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOiena AND
GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ JN.

Jarduneko idazkaria XABIER ARANBURU SOLDEVILLA JN

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2025eko apirilaren 14ko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

2.- MERCADONA S.A. OBRA-LIZENTZIAREN ALDAKETA.

Espedientea: 2023H7300007

Departamentua: Hirigintza eta Ingurumena

Gaia: Merkataritza-pabiloia eraikitzea. LIZENTZIAREN ALDAKETA

Sustatzailea: Mercadona SA

Kokalekua: Aiziazpia kalea 4 (Abendaño industrialdeko 27 partzela)

Proiektu teknikoa: Jose Maria Lopez Garcia arkitektoak sinatutakoa.

- Oinarritzko proiektua (2023ko abuztuko, ikus-onetsi gabe).
- Gauzatze proiektua (2024 apirilaren 11n ikus-onetsia)

- 2024ko abenduko eranskina, Pablo Francisco Rojas Gonzalez arkitektoak sinatutakoa (ikus onetsi gabe).

Jarduera eta obra lizentziak eskatu ziren Aiziazpia kalea 4an eraiki behar zen pabiloi batean hipermerkatu-jarduera ezartzeko.

2024ko urtarrilaren 23ko 0127 Dekretu bidez, jarduera-lizentzia eman zen.

2024ko urtarrilaren 29an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak obra-lizentzia eman zion Mercadona SL enpresari Aiziazpia kalea 4an pabiloi komertzial bat eraikitzeko.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak eta Mugikortasun arloak haien txostenak egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Mercadona SL enpresari obra-lizentziaren aldaketa baimentzea, Aiziazpia kalea 4an merkataritza-pabiloia eraikitzeko, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrengoak kaltetu gabe.

Bigarrena.- Honako baldintza hauek gehitzea 2024ko urtarrilaren 29an emandako obra-lizentziari:

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuaren urtarrilaren 2ko 1/2025 eta otsailaren 4ko 0128/2025 txostenean zehaztutakoak:

- Interesdunak espreski adierazi beharko du 2024ko abenduaren 27an aurkeztutako eranskinak 2024ko urriaren 10ean aurkeztutakoa baliogabetzen duela.

15 eguneko epean, honako gai hauek argitzea eta justifikatzea:

- Benta-Berri kaleko arrapala estaliko denez, sektorizazioa bermatu beharko da. Behe solairua eta sotoko arrapala artean makina gela aireztatzeko zuloetan, bestelako aireztatze puntuan eta bereziki babestutako eskaileraren leihoan.
- Behe solairuko komunetako aireztatze sistemaren amaiera puntua argitu. Komunetako atartea ere aireztatua utziko da.
- Teilatu mailan EKT-OD-SS2 "Kanpotik hedatzea" betetzeko soluzioa, teilatua 1. solairuko fatxada artean, luzatuko da, leiho denak hartu arte.
- Sektorizazioak eta arrisku baxuko lokalak adierazten dituen planoak aurkeztuko da.
- Teilatu mailan, instalazio guneko ebakuazioa justifikatu, EKT-OD-SSko 3.1 taularen arabera. Teilatuko instalazio guneak irteera bakarria izan dezake bertako solairuko irteeraraino edo eraikineko irteeraraino 50 m-ko ibilbidea izanda. Horretarako teilatuko instalazio guneak, espazio libreak, sute arriskuan garrantzirik gabea izan behar du (kontuan izan proiektuan



ZARAUZKO UDALA

aurreikusita dagoela teiltuan jartzea instalazio elektrikoaren talde elektrogenoaren gasoil depositua).

- Teiltu mailako desnibelen kotak argitu eta argi adierazi planoetan (teiltuko oin plano, ebaketa eta fatxadetako planoetan). Eranskinean adierazitakoak ez datoz bat. Ondoren, teiltuko instalazio gunetik teiltura doan eskaileraren xehetasunak adierazi.
- Sotoetako bereziki babestutako eskaileraren, horien atarreen eta behe solairuko babestutako pasilloen aireztapena justifikatuko da eta planoetan adierazi beharko da.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren martxoaren 7ko 0126/2025 txostenaren eranskinean zehaztutakoak (akordioari erantsiko zaizkio).

Udaltzaingoko Mugikortasun arloaren aldeko txostena, 2025eko martxoaren 26koa.

3.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.

Aztertzeko besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu biak eta bost direnean eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.